



## Kurtze baltz

Santa Marinatik Bidaurretara zuzenian fateko, etzan lehen **Kurtzebidia** baiño. Izen hori, iñolako duda barik, **Kurtze baltzen** hasten edo akabaiten zalako —nundik begiraketan dan—, jarriko otzain betiko pasabide hari. Orduan ez eukan kale-kategoriarik. Baiña inguru horretan laister etorriko ziran aldaketa galantak: argazkixan ortuak, soruak eta zelaiak ikusten diran parajian perretxikuen pare sortu ziran kale zabal nahiz estuak eta pisu askotako etxe-bizitzak. Orain dala berrogei urte baiño gehixagoko kontuekin gabitz.

Lezesarriko *etxe merkiak* izan ziran aurrenenguak 1953an, eta paraje honetan, **Matinguan**, jaso zan gerraosteko hurrengo etxe-poligonua 1956tik aurrera. Hemen modutu zan gaur eguneko **Euskadi etorbidea**, baiña sasue haretan ez eukan halako rotulorik, ez horixe; izan be, nahikua zan izen hori aittaketa bakarrik, denboralditxo bat kartzelako kerizpetan pasaitteko. Orduan **Avenida del Generalísimo** ipiñi xakon, hau da, Gabriel Aresti poetiak esango leukien moduan, **Franco guttiz jeneralaren abenidia**. Honekin paralelo geratu zan Kurtzebidek **Garicano Goñi** deitura barrixa hartu eben, garai haretako gobernadore zibillaren ohoretan, hain zuzen.

Harrizko kurtzia, beste leku askotan letxe, herriko sarrera-sarreran eguen, Goierritik etorren kamiñuak Santa Marinarako bidiarekin bat egitten eben ertzian. Gero haruntzatuago eruan zan, orain daguen tokira, borobillaren erdira. Barrenian agiri diran etxiak zutik jarraitetan daue gehixenak: **Ezpeletarena**, 1947xan jasotakua; **Antixena** eta **Baruekua**, XVIII. ekuak —nahiz eta azkenengo honen erdixa bota eta itxuraz zihero aldatu 1972tik aurrera—; kurtzia eta arkaziaren artian ikusten dan zatitxua gaur egungo **Kultura etxiari** dagokixo, baiña orduan **Garaitarren** etxe-bizitzaia zan; hurrengua, arbolatik eskumantut, mutikuen herri-eskolia zan eta bertan eguen musika-bandiaren ensaio-lekua be, *txarangia* esaten gontzana; pisu pare bat gehixagorekin, **Milagrosa** ikastetxia da 1965-66 ezker; **Sierven** komentua eta elizatxua etozen gero, baiña 1972 aldera bota ziran eta orube haretan Telefonikiaren etxia dago aspalditxuan.

Bestiok, aldakuntza batzuekin bada be, antzera ikusten dira oraindiok: parrokixako **kanpantorria**, **Zumeltzegiko** torria eta gerra aurrian jaso zan **Kurtze-bide** edo gurago badozue **Martolueneko** etxia.

J. E.

Hirigintza gaineko hainbat datu Xabier Zelaiak eskuratu dosku.

**OHARRA:** Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, LAIXANera ekar dezakezu. Errekalde Herri Eskolan gaituzu, zatoz!